


Kaxparin Super Kimio

eta minbizi-zelulen aurkako haren borroka



Helle Motzfeldt

© Minbizidun Haurren Gurasoen Espainiar
Federazioa.

C/ 3 Establiments.

07010 Palma/Mallorca (Espainia)

E-mail: fenic@bitel.es

“Kemomanden Kasper” daniar liburuaren itzulpena,
minbiziaren aurkako daniar elkarte (Kraeftens
Bekaemplese) delakoaren baimen eskergarria duela,
Kopenhaven.

Txileko Droga Antineoplasikoen Haur Programa
Nazional (PINDA) delakoko kideek (gaztelaniara)
itzulia eta Bizkaiko Etxeko Pedagogi Laguntza
Zerbitzuak 2000ko urtarrilean euskaratua.

Itzulpena: Bizkaiko Etxeko Pedagogi Laguntza



Haur guztientzat.

Kaixo, segituan Kaxparin Super Kimioren
eta minbizi-zelula gaiztoen aurka daraman
borrokaren istorioa kontatuko dizugu.

Baina lehenik zelula zer ote den argitu nahi
dizut.

Hasteko mutil bat eta neska bat marraztu
ditugu.

Ikus ditzagun!



Imajina ezazu zeure gorputza etxe baten modukoa dela.

Etxe bateko ormen antzera, zeure inguruan azala dago; azalaren atzean gelak eta pasalekuak datoz, edozein etxetan bezalaxe.

Badago janariak heltzen diren despentsa txiki baten moduko zerbait ere, hori da urdaila deitzen duguna. Bihotza hutsune txiki batean duzu eta odola zure gorputz osora bultzatzeko balio du.

Odola zainak nahiz arteriak izeneko hodi eta pasalekueetatik dabil gora eta behera.

Zeure gorputzaren barrua ezin ikusi arren, urdailaren zarata entzunda edukiko duzu eta zeure bihotzaren taupadak ere nabaritu dituzu inoiz, eskua bularrean jarriz.




Etxe bateko ormak adreiluekin eraikitzen diren era berean, zure azala zelula txiki askoz osatua dago:

Azala, azaleko zelulez,
ilea, ileko zelulez,
odola, odoleko zelulez.


Hain dira zelula hauek txikiak non ezin ikus baititzakezu, horregatik, ezagunak izan ditzazun, zelula batzuk marraztu ditugu. Ileko zelularik topa dezakezu? Zail duzu zelula bat zer den ulertzea, ezin dituzulako begiez ikusi.

Imajina ezazu zeure azaleko zelulak etxe bateko adreiluak bezain elkartuta daudela; ordea odol hodietan zelulak igerika dabilta. Izan duzu inoiz odoletan zauriren bat?



Zelula guztiak lagunak dira, dibertitzen dira eta ongi pasatzen dute, bizitzeko espaziorik nahikoa dutelako.

Marrazkian zelula berriak jaiotzen direla ikusten da, eta etengabe ugaltzen dira. Honi esker haziz joaten zara, beti zelula berriak eratzen ari direlako. Adibidez: zure ilea hazten ari da etengabe, zure ileko zelulak beti ari direlako birsortzen.




Batzuetan gerta daiteke zelularen bat zoratzea; hain da zoroa eta gaiztoa non ez baitu nahi zure gorputzeko gainerako zelulekin bizi. Honelakoak minbizi-zelulak deitzen ditugu.

Ikusten duzu zein antipatikoa den?



Gainerako zelulak haserre daude berarekin, besteak eraso, bultzatu eta baketan uzten ez dituelako.

Minbizi-zelula oso deskontsideratua da eta ez du ezer errespetatzen; oso azkar ugaltzen da eta bera bezain zelula zoroak sortarazten ditu. Berehalaxe heltzen dira oso ugariak izatera.



Halakoak metaka eta pilaka elkartzen dira eta ez diete beste zelulei sartzen uzten.

Gainontzeko zelulak oso haserre daude minbizi-zelula zoro hauekin, ez dakitelako haiekin zer egin. Batzuetan minbizi-zelula hauek oso azkar ugaltzen dira, nahaste berraste handia sortzen dutelarik, hala non sendagile baten beharra baitago zure gorputzetik kanpora bidaltzeko.

Izan ote duzu zuk hau bezalako esperientziarik?



Zorionez, minbizi-zelula horiek garaitu eta suntsitzeko tresnadun zenbait zelula ditugu odolean. Marrazkian odoleko zelula bat minbizi-zelula batekin borrokan ikus dezakezu; haietako batek minbizi-zelula bat suntsitzea lortzen duenean, besteak poztu egiten dira, baina zure odoleko zelulek ez dute beti ere lortzen minbizi-zelula guztien suntsipena, horregatik laguntza behar dute.

Baina norik emango dizu laguntza?

Ospitalean baditugu laguntzaileak eta haietariko bat duzu “Kaxparin Super Kimio”. Honexegatik ari gara istorio honetan Kaxparin Super Kimio delako horretaz hizketan.

Eta orain emaitza arreta kontatuko dizudanari.




Kaxparin Super Kimio ospitalean bizi da, frasko bateko likido batean igerika bere lagunekin batera: Karlos Kimio, Jon Kimio, Karen Kimio eta beste hainbeste.

Halako batean, jaun sendagilea Kaxparin Super Kimiorengana doa eta laguntza eskatzen dio halaxe esaten diola: “Gaur lanean aritu beharra daukagu, badago gure laguntza behar duen haur bat, gorputzean minbizi-zelula ugari ditu eta bere odoleko zelula onak lanean ari dira atsedetik gabe zelula gaizto horiek suntsitu nahian. Lan zail honetan zure laguntza eta zure adiskideena behar dugu”.

“Ongi da, prest gaude!” erantzuten dio berehala Kaxparin Super Kimiok. Emaguzu lanari ekiteko baimena!



Sendagileak xiringa hartu eta Kimio txikiekin kargatzen du. Haietako bakoitza bultzaka ari da eta nahi du lehena izan haurrari laguntza ematen.



Haurra ohean dago sendagilearen zain.
Tomax du izena eta sudurreraino dauka jarri-
ta estalkia, zer gertatuko den ez jakiteagatik
apur bat kezkaturik dagoelako. Tomax ezin
ditu ikusi Kimio txikiak, zelulak bezain
ñimiñoak direlako.



Ailegatu den lehenbiziko Kimioa, Kaxparin Super Kimio izan da eta lagunei esan die: “Etorri nire atzetik!”... Ahalik eta arinen doaz denak, baina haien hankak oso dira laburtxoak. Zelula onak deika ari zaizkie leku guztietatik eta agurtzen dituzte: “Eskerrak heldu zaretela, lagun gaitzazue zelula gaitzo hauek suntsitzen!” Minbizi-zelulak haserre daude, izkutatu eta ihes egiten saiatzen dira.



Gainerako zelulek bidea galerazten diete minbizi-zelulei ihes egin ez dezaten. Kaxparin Super Kimiok eta haren lagunek bata bestearen atzetik irensten dituzte.

Beste zelulek barre egiten dute eta poztu egiten dira Kimio txikiak borrokan ari diren bitartean.



Baina badugu arazo bat: Kimio txikiak ikusmen eskasa dute. Seguraski konturatu zara betaurrekoak erabiltzen dituztela minbizi-zelulak ikusi ahal izateko.

Batzuetan Kimio txikiak hain azkar ari dira korrika non estropozo egin eta betaurrekoak galtzen baitituzte. Honegatik zenbaitetan Tomaxen zelula onetako batzuk ere jaten dituzte.



Begira zer gertatu den! Kimio txikiek
Tomaxen ileko zelulak suntsitu dituzte!

Marrazkian Tomaxi ilea nola erortzen zaion
agertzen da.

Haurra harrিতa dago, gauza arraroa da
berarentzat ilea nola galtzen duen ikustea.

Zorionez, ileko zelulak oso azkar ugaltzen
dira eta ilea osteraz haziko zaio berehala.



Era berean baliteke Kimio txikiak Tomaxen urdailean barrena galdu eta bertako zelulak suntsitzen aritzea.

Oso desatsegina da urdaileko zelulak erasotzen dituztenean, eta horren ondorioz Tomax goraka hasi da.



Minbizi-zelularik jadanik ez dagoenean, Kimio txikiak zeharo nekaturik baina poz pozik, irten egiten dira Tomaxen gorputzetik.

Inork ez daki nora doazen, agian euren herrira itzultzen dira, han Kimio txiki berriak sortuko dituztelarik.

Batzuetan minbizi-zelula batzuk oso ongi izkutatu dira eta Kaxparin Super Kimiok ezin izan ditu aurkitu. Topa zenezake zelula gaiztorik ondoko marrazkian?

Arrazoi honengatik, Tomaxek oraindik ospitala bisitatu behar du noizean behin, harik eta minbizi-zelularik bat ere geratzen ez den arte.



Gustatu zaizu Kaxparin Super Kimioren istorioa?

Hala bada, imajina ezazu Kaxparin Super Kimiok, haren lagunak eta zeure zelulek elkarrekin lan eginda, nola borrokatu eta suntsitzen dituzten minbizi-zelulak.